

«Oso penagarria da, tabernak alkolola kontsumo hutserako bihurtzea»

Antton Arkaren ustez

ASTIGARRAGA. DV
J. ORMAZABAL

Gure herritar, Antton Arka jaunaren idatz lanari jarraipena emanez, gogora ditzagun, berak, herriko tabernalariari zuzenduriko lerroak. Honela diote: «Herriko tabernalariak, sagardo bolada bakarrik «Abuztua egiteko» tarteak kontsideratzea, besteak ahazturik, ez da bidezkoa. Txalogarria bai, izan da, beren kezka herria ondo modaltzeko -ixtek ordua, soinua pixka bat jeistea, apartaleku proposamena, bisitariei harrera on bat egitearren.

Eraberean, oso penagarria da, tabernak alkohola kontsumo hutserako bihurtzea, Wiski marka bat edateko ordu eta entorno gazte baterako konbidatu, kartel dotore baten bitartez, aktibitate sozio kulturala izango balitz bezala.

Azkenik, eta Udalari, Arka Jauna berak, honako hau dio: Imagen aholku zerrendatxo bat.

Hots, komunikabide aurrean herri eta sagardotegiez hitzeging aurretik, prestatu esan behar duzuen -edo kontsultatu- eta itxura gorde, bestela invasión, caos, desmadre eta halako hitz jarioak betiko jarriko dizkigute kanpokoek».

EL DIARIO VASCO
Martes, 28 de abril de 1992